

## Espainiako Kongresua eta Senatua

# Bigarren trantsizioaren zain, hamargarrenez

Euskal Herri osoan, lehen aldikoz historian, hauteskundeak burutuko dira martxoaren 9an. Espainiako Estatuko hauteskunde orokorrak dira Hegoaldekoak. Herri eta kantonamendu bozak Iparraldekoak. Alderdi abertzaleak marko politikoaren aldatzearen alde borrokatzen dira bietan.

MIKEL ASURMENDI

IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS



J. C. RUIZ / ARGAZKI PRESS



PSOeko Rodríguez Zapatero eta PPko Mariano Raxoi bigarren aldikoz lehiatzen ari dira Espainiako hauteskunde orokorretan.

**ESPAINIAKO ESTATUKO** Kongresuko eta Senatuko ordezkariak aukeratuko dira hamargarren aldiz. Hauteskunde hauek Francoren diktaduraren osteko trantsizioan izan zuten abiapuntu. Diktaduraren aurretik, gobernu sistema Errepublikan izan zen eta Monarkia parlamentarioa da egungoa. Konstituzioak espainiar nazioari aitortzen dio nagusigoa, periferiako nazioak bigarren mailakoak edo “nazionalitateak” izaki.

Kongresua eta Senatua zentro-eskuineko aukera politikoei (UCD)

kudeatu zuten lehen bi legealdietan. Ondoren, zentro-ekzerrak (PSOEk) eta eskuinak (PPk) gobernatu dute aldika. Gaur egun, bipartidismoa egonkortu da, mendebaldeko demokrazien eredu nagusia. Demokrazia honek AEBetako ereduarekin gero eta antza gehiago dauka. Hedabideek markatzen dituzte hauteskundearen emaitzak neurri handian; PSOeko Zapatero eta PPko Raxoi hautagai nagusien lehia mediatikoa lekuko. Bi alderdiak eredu sozial ezberdinen ordezkariak dira, baina

estatu-nazioaren eredu osagabeak euren politikak definitzen ditu nagusiki.

Euskal Herritik begiratuta, hauteskunde hauek bi eremutan jokatzen dira: Espainian eta bertan. Bertako eremuak bi esparru ditu: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroa.

### Zapatero edo Raxoi

PPk bi aldiz irabazi ditu hauteskundeak, baina bi legealditan gobernatu ere. PSOEk baino estatu eredu definitua-

goa dauka eta botere ekonomikoa, lege-gilea eta Elizarekiko harreman sendoa. Estatuaren oraingo marko-juridikoaren *statu quo* hobesten du, nazio-anitzaren ideia errefusatu. PSOEek gizabanakoen eskubideak hobeto landu ditu, baina nazio-anitzaren eredia lausoa du oraingoz. Iragan legealdian –Kataluniako Estatut berriaren bitartez– Estatuaren eredia birmoldatzeko saioa zirudiena ezerezean geratu zen. Zapateroren Gobernuak, halaber, Eusko Legebiltzarren Estatutu Berriaren proposamena geldiarazi zuen. Euskal Herriaren bake eta normalizazioaren saioak ere berea egin du. Hogeita hamar urteotan hiru saio izan dira irtenbidea bilatzeko –Aljerreko elkarrizketen, Lizarra-Garaziko Akordioaren eta Anoetako Proposamenaren kariaz–. Gobernuen eta ETaren saioek porrot egin dute.

### Nafarroa abiapuntu eta gakoa

Espainiako gobernuburu Zapaterok, hauteskunde kanpaina hasi aitzin, Nafarroan eman zuen bere lehen mitinetako bat. PSOEren zaurietako batek

Nafarroa du izena. PSOEek PSNren eta NaBairen arteko akordioa zapuztu zuen, UPNren (PPren) Gobernu alternatiba izan behar zuena. Zapaterok Nafarroako elkarbizitza jarri zuen aitzakiatzat, askoren aburuz Espainiako egonkortasuna ziurtatu nahi zuen, ordea.

### “Inboluzio egoeran gaude. Honek bake aukera bizkortu edo urrundu dezake”

Nafarroan bost diputatu aulki daude jokoan: UPNk eta PSNk bina dituzte, NaBaik berriz bat. Ez dirudi aulki banaketan aldaketarik egongo denik. PSNk ordezkari bat galtzea, NaBairen mesedean, aldaketaren akuilua litzateke. UPNk berau bereganatzea iraganera itzultzea litzateke. Ezker abertzalearen hautetsi independentisten ekimenaren abstentzio jarrerak nola eraginen duen faktore berria da.

### EAE eremu abertzale aitzindaria

EAEEn, alderdi abertzaleen ordezkariak zortzi izan dira aurreko legealdian: EAJk zazpi diputatu ditu eta EAK bat. EAJk PSOEren Gobernuaren aurrekontuak sostengatu ditu, EAK ez ordea. EAJren lematako batek hauxe dio: “PP eta PSOE ez dira gauza bera, baina berdin jokatzeko dute”. Dialektikaren garaia da, inondik ere. Ekintzak ez du izana definitzen, antza. Aldiz, EAK dio berak ez dituela, EAJk bezala, Estatuako Gobernuaren politika zentralistak laguntzen. EAK haatik EAEko eremu politikoa EAJrekin kudeatzen du –EBrekin batera–. Politika posiblearen artea baita. Ez gaude akordio garaian, politika garrantzaren garaia da. Politikan kalkulu guztiak sartzen dira. Esaterako, ezker abertzale ofizialaren hautetsiak independentistak eta ezkerrekoak dira. EA ere independentista eta ezkertiar gisa ari da kanpainen, baita Aralar halaxe aritu ere. Antza, EAEEn abertzaleak indartsuak direlako bereiz doaz. Nafarroan EAJ, EA

## BIKIAK



Santi Leoné \*

Beldurrezko zenbait filmetan gai klasikoak da: bi anaia edo bi ahizpa, bikiak, bata gaiztoa eta bertzea ez hain gaiztoa. Martxoko hauteskundeetako istorio beldurgarrian ere bikiak ditugu protagonista Espainian. Bikiak, aukeratutako kanpainen, biek hauteslea iraintzea erabaki baitute: bata, munduaren akabera iragarritz, bertzeak, botoaren

truke dirua eskainiz. Eta bikiak, halaber, ikuspegi periferiko batetik munta handiko kontuetan. Horretan, José Bono PSOEko hautagaiak eman du giltzarria. Politikara zerk bulkaturik itzulia zen galdetuta, hau bota zuen Bonok –buruz ari naiz–: “Gauza anitz aipa nitzake, baina bereziki bi azpimarratuko dizkizut: Maragall ez dago Kataluniako Gobernuan, eta Gobernuaren jarrera ETArekin aldatu egin da”. Bikiak, beraz, espainiartasunean, eta norgehiagoka nazionalismo periferikoen aurkako grinan. Justiziaren edo dena delakoaren hondar epaiak ikusi bertzerik ez dago.

Nafarroan, aipatu bikitasuna biderkatu egiten da, Gobernuko alderdia eta haren euskarri zintzoa guztiz berdintzeraino. Navarristen argudioa da: balizko Euskal Herri independente batean edo soilik Hegoalde autonomo bateratu batean, gure biztanleria eskasa baliatuta,

Bilbotik gobernatuko gintuzkete. Ez dakit, bada. Edonola ere, argi dago nola gobernatzen gaituzten Espainiatik, gure boto kopuru urria arbuaturik. Eta horretan ere, bi alderdiak norgehiagoka Nafarroaren espainiartasunaren aldeko suan.

Denak zaku berean sartu dituztelako, lehen errugabetzat jota libre atera zitezkeenek, orain erruduntzat joak izateko aukera guziak dituzten bezala, lehen legalak zirenak legez kanpo daude orain. *Cuatro* telebista ikusteari utzi diot eta, hortaz, ezin erran zergatik Gobernuak behartuta ikusi duen bere burua erabaki horiek hartzea. Bikien arteko dema honetan, ez dakit nork irabaziko duen. Susmoa dut PPK galduko duela, hainbat eragin txar askatzen jakin ez duelako. Irabazten duena irabazten duela, gutxiengoaren esku egonen da desberdintasuna sartzeko zeregina eta espainiartasunaren garra pixka bat –sikiera– epeltzeko lana.

Nafarroan, emaitza posibleen artean, bi, bi eta bat izanen litzateke hoberena (hau da, bi jarleku NaBairendako, eta bat PSNrendako). NaBai-koek diote, azken batean, etorkizunean norbaitekin negoziatzekoan, sozialistekin negoziatu beharko dutela. Arrazoia dutela uste dut. Baina, ikusiak ikusita, hori pozgarria ala negargarria ote den, irakurleari dagokio erabakitzeari.

\* Historialaria

eta Aralar eskutik doaz NaBai-n. Ezker abertzale ofiziala (Batasuna) ez. Ipar Euskal Herrian Batasuna eta EA elkarrekin doaz (ABrekin; demagun Aralarren hurbilekoa).

Azken legealdian PSEk zazpi aulki bete ditu eremu honetan, PPK berriz lau. Espainiako politika-eremua dute amu bertako eremuko aulkiak ziurtatu ahal izateko.

### Anoetatik Loiolara

Trantsizioan zabalduko garaiak Lizarr-Garaziko Akordioan izan zuen inflexio puntua. Oraingoak berriz inboluzio garaia dirudi. 2004ko martxoaren 11ko Madrilgo sarraskiek –hauteskundeak baino bi egun lehena-gokoak– aldatu zuten Estatuko politikaren norabidea. PSOEek boterea ustekabean berreskuratu zuen. Horrek ETArekin –eta ezker abertzalearekin– berriz ere euskal auziari irtenbidea bilatzea bizkortu zuen. Bide orriaren abiapuntuko estazioa Anoeta izan zen. Azken estazioa berriz Loiola. ETAk, hauteskunde kanpaina hasi eta bere

marka utzi zuen Bilboko Arnotegi mendiko telebista hedagailuan. Bere jarduerak –duela lau urteko sarraskiek eragin zuten moduan– gobernu aldaketa eragin ote dezakeen aipatu da. Hori da inkognita. Inkognita da halaber, PSOEek irabaziko balu, zein neu-

### “Ezker abertzale ofizialak proposatutako abstentzioaren eraginak gatazkaren parametroak zehaztuko ditu neurri batean”

rrian saiatuko litzatekeen ETArekin negoziatzen berriz ere. PSOEek baina, maxima hauxe jarri du mahai gainean: “Indarkeriarekin ez dago politikarik”.

### Estatuaren marko berrirako indar korrelazioaren lehia

Alderdi konstituzionalistek 312 ordezkari dituzte Kongresuan: PSOEek 164 eta PPK 148. Periferiako alderdiek 37.

Azken bi hauteskundeetan, batez beste, Espainian nahiz bertako eremuetan (Hego Euskal Herrian) %76k bozkatu zuen. 2000ko hauteskundeetan berriz: %67k. Haiek PPK irabazi zituen.

EAJko trena Estatuko periferiaren bide luzea egiteko prest dago, antza. Maltzagako bidea aspaldian zapuztu zen. Ezker abertzale ofizialak proposatutako abstentzioaren eraginak gatazkaren parametroak zehaztuko ditu neurri batean. Inflexio une asko ezagutu dugu azken hogeita hamar urteotan. Uneon inboluzio egoeran gaude. Inboluzio honek aukera politikoko berriak bizkortu edo urrundu ditzake. Ezusteko handirik ezean, hauteskundeetako emaitzek ez dute panorama politikoa tsunamia eragingo. Hala ere, bake eta normalizaziorako bideko estazioak hurbil edo urrun dauden antzemanen dugu. Loiolan geratu zen trenak berriz abiatzerik duen edo ez. Irtenbiderako bidea luze izan liteke, edo ustekabean, politikako abangoardiek eta eliteek auzia ebatzi. Politika posiblearen artea baita, baita inposible dirudienean ere. ■

## HERRITARREN INTERESAREN BILA?



Julen Zabalo \*

Hauteskunde kanpaina batean, herritarren intereseko kontuak zehaztea, eta horien gainean proposamen erakargarriak egitea bilatzen omen dute alderdiek. Hori dela eta, abstentzioa saihestu nahi izaten da, abstentzioak herritarren desinteresa adieraziko luke eta. Teoriak praktika behar du, ordea, eta praktikak esaten du alderdiek eurek herritarren interesa

zehazten eragiten dutela, komunikabideen bidez, batez ere, eta komunikabideetatik hedatzen diren berriei emandako tratamenduaren bidez, zehatzago.

Hala ere, praktikak orain esaten digu estatuak nahiago duela herritar jakin batzuek abstentziara jo dezatela, herritar horiek gizartearen dinamika politiko instituzionalizatuan sarraraztea baino. Oraindik ez dituzte ikusi, baina laster hasiko dira mezu instituzionalak jendea botoa ematera joan dadin animatuz. Halakoetan, jendeari arduraz jokatzeko eskatzen zaio; herritar gisa bere erantzukizunak bete ditzala. Badaude herriak botoa ematea derrigorrezkotzat jotzen dutenak, eta zigortu egiten dutenak abstentzioa. Hego Euskal Herrian, aldiz, erabaki sendoa dago herritarren kopuru esanguratsu bat hauteskunde jokotik at uzteko. Sen-

doa ere bada Espainiaren tradizio demokratikoaren beste keinu bat!

Ez da keinu bakarra, ordea. Izan ere, tradizio horrek ez du uzten euskal herritar askoren interesa den independentzia lantzen (aldarrikatu ahal den arren). Halako erabaki bat defendatzeko, metatu egiten dira motiboak, ondo oinarrituak asko: elkartasuna, herritarren arteko tirabira posibleak saihestea, eta abar. Gainera, badaude, nazio arazotik at, milaka gai interesgarri daudela diotenak, eta are gehiago, bestelako gaiak benetan interesgarritzat jotzen dituztenak, nazio arazoa ez bezala.

Baina hasierara itzuliz: zein da herritarren interesa; nor erabakitzen du zein den; edo zelan eragiten da batera edo bestera mugi dadin. Nik, datu berezirik behar izan gabe, baieztape argia egingo nuke: Hego Euskal Herrian nazio gaiak interesa pizten du, eta interesik handiena pizten duela ere esan nezake. Hauteskunde hauek interes handi horri erantzutea eduki zezaketen helburu, baina aurretiaz badakigu ezetz. Alderantziz, gai hori da erantzun nahi ez dena, eta hori badakite aurkezten diren indar politikoei. Badakite Hego Euskal Herriko herritarren interes handia pizten duen nazio gaiak eragile politiko guztien arteko konponbidea eskatzen duela, eta indar horietako bat hauteskundeetatik bazterrean utzita, ezina dela konponbidea erdiestea. Noren interesa defendatu nahi dute, orduan?

\* Soziologia irakaslea

Iparaldeko herri eta kantonamendu bozak

# Hamaika aukera frantses politika egonkorrean

Martxoaren 9an eta 16an udal eta kantonamendu bozak dira Frantziako Estatuan. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko 52 aulkitik 26 berrituko dira bi igande hauetan. Ipar Euskal Herrian 11 aulki daude aukeran. Kontseilari abertzaleren bat eseriko ote?

**FRANTZIAR ERREPUBLIKAKO** herri eta kantonamendu bozak aro berria ezagutzen ari dira presidente berriaren eskutik: bozak Nicolas Sarkozyren marka dute. Ipar Euskal Herriko solas-leku politikoetan honako lema honek hartu du indar: “Hauteskunde hauek ez dira politikoak”. Pertsonaren markak –politikariak dira edonola ere– gailendu dira berauetan. Alderdien markak ahulduz joan dira. Markak marka, interesak interes, eskuineko, zentroko, ezkerreko nahiz abertzaleak aurki ditzakegu herriko etxerako zerrenda berean.

Artean, presidentek Eliseoko maizterra baino gehiago izan nahi du, erregea izan nahi du. Politikako eremu eta alderdi guztiak bere menpe nahi ditu. Barne Ministerioaren aginduz, udal bozetako hautagaiek, independente izan arren, beren marka politikoa zehaztu behar dute Suprefeturan.

Halaber, Nicolas Sarkozy Pirinio Atlantikoak departamenduan izan zen kanpaina hasi aitzin eta bere arrastoa utzi zuen Kako baserri aferaren kariatz. Alegia, abertzale den guztia arras arriskutsua da Errepublikako demokrazian.

Udalerrietako (herriko etxeak) nahiz kantonamenduetako bozetan erabakitzen den –Paueko– Kontseilu Nagusian azpiegiturazko proiektuak dira munta handiena dutenak: etxebizitza, AHT, 2x2 errepeidea, A-63 autobidearen zabaltzea. Hondakinen kudeaketa, bestalde. Alderdiak, printzipioz, jarrera ezberdinak dituzte proiektu hauek gauzatzeko orduan. Nola moldatzen ote dira hauteskunde programa osatzeko, ordea? Erantzuna “hauteskunde hauek ez dira politikoak” lemaren barnean aurki liteke, naski.

## Herri hauteskundeak: abertzaleak eta gainerakoak

Gainerakoak alderdi frantziarrak dira, nagusiak, alegia. Baiona, Miarritze, Angelu, Donibane Lohizune eta Hendaia dira plaza nagusiak. Miarritzeko senataria Didier Borotra notableak (70 urte ditu) berrituko du auzapez karguan. Zentrista (UDF) honek eskuina, ezkerra, berdeak eta abertzaleak bere aldera bideratu zituen aspaldi. Baionako Jean Grenet diputatu auzapezak (UMP) zailtasun gehiago dauka. Notable honek ere berdeak, abertzaleak eta zentristak eraman ditu bere bidera. Alta, hainbat urtez berarekin aritutako Yves Ugalde bere kasa aurkezteak amini bat zaildu du auzapeza segitzeko

aukera. PS eta PCFek sostengatutako Jerome Agerrek egin diezairoke itzal. Grenet diputatuaren markak du berme nagusia halere. Angeluko auzapez kargua zalantzan dago. Robert Villenave (UDF-UMP) auzapezak –Grenet Baionan bezala– berarekin aritutako Battite Mortalena du arerio zuzena. Donibane Lohizune da notableen lekukotasun agerikoena. Michele Alliot-Marie Barne ministro da zerrendaburu eta irabazle segurua. Berak ez du auzapez kargua beteko, orain arteko Peyuco Duhart auzapezak baizik. Hendaia eta Urruña dira beste plaza aipagarriak. Urruñan Daniel Polou izan da auzapeza. Diputatua ere bada, Michele Alliot-Mariere ordezkoa. Ez du notable titulua



GAIZKA IROZ



GAIZKA IROZ

Jean-Michel Galant (EHB) eta Alain Iriart (independentea) izan litezke kontseilari abertzaleak.

erdietsi, antza denez. Kargu sobera izan du, naski. Diputatua izateaz gain kontseilaria izaki Pauen, auzapez kargua Leon Marin-i utzi zion. Ez dira ondo moldatu eta Polouk Daniel Irazoki sostengatu du auzapez izateko. Urruñan, Angelun legez, auzapezaren aulkia zalantzan dago. Hendaian Kotte Ezenarro auzapezak berrituko du karguan. Gainerakoa ezustea litzateke. Hendaian baina hautagai abertzaleen paradigma islatu da. Biharko Hendaia da abertzaleen zerrenda, Batasunak nahiz ABk sostengatua. Richard Irazusta, ABko kide esanguratsua, Biharko Hendaiaiko zerrendan joatekoa zen, baita horretan aritu ere. Alabaina, abertzaleen batasuna hitz soila baino ez da, antza. Hendaiaiko beste bi zerrendetan (Kotte Ezenarro eta Battite Salaberri) marka guztietako abertzaleak daude, eta ez dira gutxi. Sarkozyk aro berria markatu nahi du. Abertzaleen aro berria ez da iritsi oraino.

### Kontseilu Nagusia: Jean-Michel Galant, baita Alain Iriart ere, agian.

Herrietan ez bezala, kantonamendu bozetan Euskal Herria Bai kandidaturak (EHB) ordezkatu ditu alderdi abertzaleak: ABk, Batasunak eta EAK sostengatua. EAJ ez dago koalizioan. Ohargarria da: Nafarroan –NaBai dela bitarte– Batasuna ez dago abertzaleen koalizioan. Iparraldean berriz, EAJ ez dago. EAJ abertzaleen koalizioan aritzeko aukera urte askotarako galdu dela ematen du. Hendaia eta Donibane Lohizunen hautagaiak aurkezten ditu EAJk: Iñaki Ibarloza eta Argitxu Noblia, hurrenez hurren.

Paueko Kontseilu Nagusian zentro-eskuina da nagusi. Bidaxuneko auzapez Jean-Jacques Laserre da presidentea (UDF-Modem), François Bayrouren ildokoa. 21 kantonamenduetako kontseilariak berrituko dira; 11 Iparraldean. Jean-Michel Galant kontseilari abertzale bakarra ABren izenean aritu da zazpi urtez. EHBren

izenean aurkeztu da orain Baigorriko kantonamenduan. UMPko Philippe Juzan du arerio nagusia. Eskuina zatituta dago ordea. Jacques Etxandi (UDF-Modem) zentristak ere aukeratu ditu. Galant bigarren itzulian hautatua izan zen eta oraingoan ere, izatekotan, halaxe beharko da.

Hiriburuko Alain Iriart auzapezak eskura dezake kontseilari kargua bertako kantonamenduan. Eskuinak ez du hautagairik aurkeztu. Ezkerra (PS eta PCF bereiz) eta EHBko Jean-Luc Hauziart ditu arerio. Iriart ABko kidea da baina independente gisa aurkeztu da: “Abertzaleak ardura postuetan izatea nahi dut, ez beti oposizioan” du lema.

Alderdi abertzaleen xede nagusia Euskal Departamendua da –euskararen ofizialtasuna eta Laborantza Gantza barne– eta giltzarri dira zenbait herritan edo plazatan. Kontseilu Nagusian alderdi frantsesen oraingo *statu quo* zalantzan ezartzeko denbora beharko da alabaina. ■

## BERRIKUNTZARIK GABEKO BOZKAK



Eguzki Urteaga \*

Bozka hauen ezaugarriak hamar puntutan laburbildu daitezke:

- 1) Normalean, alderdi abertzaleek beren emaitza hoberenak bertan lortzen dituzte, bai bozka kopuruetan bai ehunekoetan, hurbileko hauteskundeak direlako, esan nahi baita bertako gaiek, arazoek eta pertsonen lehenetsuna daukatela,
- 2) Bi itzulitako gehiengo bozka denez, alderdi txikiei ezinbestekoa zaie alderdi nagusiekin adostasun batera iristea, lehen itzulian elkarrekin abiatuz eta bigarren itzuliari begira akordio bat izenpetuz.
- 3) Abertzaleak modu ezberdinetan aurkeztuko dira, alegia, zerrenda propioak aurkeztuz, Baionan suertatzen den bezala Baiona Berriarekin ala Donibane Lohizunen gertatzen den legez Herri Berrirekin, lehen itzuliaz geroztik zerrenda nagusietan sartuz, Angelun ala Miarrizten izango den gisa –horrek, hautetsiak edukitzea bermatzeaz gain, ardurak lortzea ahalbidetzen du– ala bigarren itzuliari begira, adostasun batzuetara ailegatuz –estrategia horrek arrisku bat dauka zeren alderdi abertzaleek ez daukate izaera propiorik eta ikusgarritasun handirik–.
- 4) Gehiengoak faboratu nahiz, IV. Errepublikako Legebiltzar erregimenak sortutako ezegonkortasuna saihesteko asmoarekin, bozka sistemak zerrenda nagusien gehiengo

areagotzen du; hori dela eta, aulkien gehiengo ziurtatua izateaz gain, bere politika aurrera eraman dezake oposizioa zokoratuz,

5) Udal bakoitzeko zinegotzien kopurua handia da: 9 eta 39ren artean kokatzen baita, horrek sortzen dituen kudeaketa arazoekin. 3.500 pertsonatik beheragoko herrietan (herrien gehiengo, batez ere Lapurdi barnealdean, Baxenabarren eta Zuberoan) hautesleek zerrenda ezberdinetako hautagaien artean aukeratu dezakete, bozka pertsonalizatuz eta alderdien logika ahulduz.

6) Alderdien indarra nahiko xumea da hautagai asko etiketarik gabe aurkezten baitira, nahiz eta hautetsi nagusi guztiak gobernu alderdien sostengua eduki.

7) Historikoki, Ipar Euskal Herria zentro-eskuineko lurraldea da, alderdi sozialistak zailtasun nabariak dauzkalarik boterera iristeko, Hendaia, Ziburu ala barnealdeko herri batzuk salbuespenak direlarik.

8) Notabilismoak pisu itzela dauka, esan nahi baita hautetsi nagusiak jauntxoak direla eta beraien zilegitasuna Frantzia eta Iparraldearen artean betetzen duten bitartekari funtziotik jasotzen dutela, funtsezko solaskideak izanez.

9) Hautetsiek hainbat kargu pilatu ditzakete, esaterako, Biarritzeko alkatea. Frantziako senataria da eta Baiona-Angelu-Biarritz Hiri Elkargoko lehendakaria da.

10) Ez dago berrikuntza handirik, ez pertsonetan, ez belaunaldietan, ez genero kontuetan.

\* Soziologia irakaslea